

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 466/2022 Foru Agindua, uztailaren 27koa. Onestea diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako laguntza eskatzeko prozedura; laguntza hori jaso zen ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuan, zeinaren bidez hainbat neurri hartzen eta luzatzen baitira Ukrainako gerrak dituen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uharteko suspertze ekonomiko eta sozialerako

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuak, hainbat neurri hartzen eta luzatzen dituenak Ukrainako gerrak dituen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uharteko suspertze ekonomiko eta sozialerako, zuzeneko laguntzen lerro bat arautu du diru sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzat, nola soldatapeko eta autonomoentzat, hala langabetuentzat.

Ordainketa bakarreko 200 euroko laguntza horren helburua da Ukrainaren inbasioaren ondoriozko energia krisiak prezioetan izan duen eragin kaltegarria arintzea gizarte izaerako beste prestazio batzuek estaltzen ez dituzten kalteberatasun ekonomikoko egoeretan, hala nola kotizaziopeko pentsioak, zeinen igoera inflazioaren arabera bermatzen baita, bizitzeko gutxieneko diru sarrera edo kotizazio gabeko erretiro edo baliaezintasun pentsioak, kontuan hartuta azken bi kasu horiek aparteko igoera baten onura dutela jada, errege lege dekretu horretan jasotakoaren arabera. Laguntza hori jasotzeko, halaber, baterako diru sarreren eta ondareen gehieneko kopuru batzuk ezartzen dira, etxean bizikide direnen arabera, laguntzaren onuradunen kolektiboak premia eta progresibitate printzipioak bete ditzan.

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren 31. artikulua arabera, EAeko erakundeek dute aipatutako laguntza izapidetzeko eskumena, baldin eta onuradunak egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badu.

Ondorioz, foru agindu honen bidez, aurreko paragrafoetan jasotako laguntza eskatzeko prozedura arautzen da.

Adierazi behar da ezen, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren arabera, laguntza ez dela enbargatuko eta/edo konpentsatuko zerga zorrak azkentzeko bide gisa.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako txostena.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Foru aginduaren xedea

Foru agindu honen xedea da arautzea ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren 31. artikuluan ezarritako laguntza eskatzeko prozedura; errege lege dekretu horren bidez, hainbat neurri hartzen eta luzatzen dira Ukrainako gerrak dituen ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uharteko suspertze ekonomiko eta sozialerako.

2. artikulua. Onuradunak

Aurreko artikuluan adierazitako laguntzaren onuradun izango dira ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretua indarrean jartzen den egunean bizilekua Arabako Lurralde Historikoan duten eta errege lege dekretu horren 31. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak.

3. artikulua. Laguntza eskatzea eta ordaintzea

1. Foru agindu honen 1. artikuluan ezarritako laguntzaren eskaera egiteko, inprimaki bat bete eta bidali beharko da. Inprimaki hori Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan jarriko da interesdunen eskura 2022ko irailaren 30era arte.

2. Arabako Foru Ogasunak laguntza ordainduko du, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuan eskatutako betekizunak egiaztatu ondoren.

Adostutako laguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, eta dirulaguntza emateko erabakia jakinarazitzat joko da transferentzia jasotzean, hargatik eragotzi gabe eskatzaileari jakinarazpena egitea.

3. Inprimakia aurkezteko epea amaitu eta hiru hilabete igaro ondoren ordainketa egin ez bada, eskaera ezetsia izan dela ulertu beharko da.

Presuntziozko ezeste horren aurka berraztertze errekurtsoa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean xedatutako moduan.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 27a

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA